

EBAZPEN BATZORDEAREN

BILERAREN

AKTA

2016ko ekainaren 9

Donostian, 2016ko ekainaren 9ko 17:00etan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan honako hauek bildu dira: Juan Luis Ibarra Robles jauna, Ebazpen Batzordeko lehendakaria eta bertako kideak direnak, hots, Andrés María Urrutia Badiola jauna, Javier Balza Aguilera jauna, Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jauna, Ramón Bengoetxea Caballero jauna, Kepa Bilbao Gaubeka jauna eta María Carmen Agoues Mendizabal andrea. Era berean, Batzordeko idazkaria den Begoña Basarrate Aguirre andrea bertaratu da. Hona hemen hartu dituzten

ERABAKIAK

LEHENENGOA.- BATZORDEAREN EGOITZAN SARRERA IZAN ZUTEN IDAZKIAK, HOTS, 1/2015, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 ESKUMEN-ARAZOEI BURUZKOAK AZTERTZEA. ESKUMEN-ARAZO HORIEK PLANTEATU ZITUZTEN, HURRENEZ HURREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK, ARABAKO BATZAR NAGUSIEK, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAK “EAEko ERAKUNDEEN BARNE ANTOLAKETARI” BURUZKO LEGE-PROPOSAMENAREN AURKA.

Idazkari andreak aipatutako eskumen-arazoei buruz Batzordearen egoitzan sartu diren idazkien berri eman du:

1.- Arabako Batzar Nagusietako letradu nagusiak 2016ko maiatzaren 26an aurkeztutako idazkia, Ebazpen Batzordearen Legeko 32. artikuluan aurreikusi, eta maiatzaren 10eko bileran erabaki zen entzuteko izapideari erantzunez.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

2.- Arabako Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuko letradu buruak 2016ko maiatzaren 26an aurkeztutako idazkia, Ebazpen Batzordearen Legeko 32. artikuluan aurreikusi, eta maiatzaren 10eko bileran erabaki zen entzuteko izapideari erantzunez.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuko letradu buruak 2016ko maiatzaren 27an aurkeztutako idazkia, Ebazpen Batzordearen Legeko 32. artikuluan aurreikusi, eta maiatzaren 10eko bileran erabaki zen entzuteko izapideari erantzunez.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lege-zerbitzuetako letraduak 2016ko maiatzaren 30ean aurkeztutako idazkia, Ebazpen Batzordearen Legeko 32. artikuluan aurreikusi, eta maiatzaren 10eko bileran erabaki zen entzuteko izapideari erantzunez.

5.- Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoko Sailburuordetzako letraduak 2016ko maiatzaren 30ean aurkeztutako idazkia, Ebazpen Batzordearen Legeko 32. artikuluan aurreikusi, eta maiatzaren 10eko bileran erabaki zen entzuteko izapideari erantzunez.

6.- “Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak” Legebiltzar-taldearen eledunak 2016ko maiatzaren 31n aurkeztutako idazkia, Ebazpen Batzordearen Legeko 32. artikuluan aurreikusi, eta maiatzaren 10eko bileran erabaki zen entzuteko izapideari erantzunez.

BIGARRENA.- ERABAKIA, ERAKUNDE LEGITIMATUEK EBLko 32. ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO ENTZUTEKO IZAPIDEAN FORMULATUTAKO ALEGAZIO ETA KONTSIDERAZIOEI BURUZKOA.

Jaso dira formulatutako alegazioak eta txostengileei helarazpena egitea erabaki da beroriek kontsidera ditzaten eta hartuko den erabakiaren aurrekarietan sar daitezen.

**EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL**

HIRUGARRENA.- KEPA BILBAO GAUBEKA TXOSTENGILEAK AURKEZTUTAKO AURREKARIEN ZIRRIBORROA, HOTS, “EAEko ERAKUNDEEN BARNE ANTOLAKETARI” BURUZKO LEGE-PROPOSAMENAREN AURKAKO 1/2015, 2/2015, 3/2015 ETA 4/2015 ESKUMEN-ARAZOEI BURUZKOA AZTERTZEA.

Esparru-txostenei buruzko deliberazioa garatu eta amaitu da, eta behin betiko posizioen helarazpena egin zaio Kepa Bilbao Gaubeka txostengileari Erabakiaren testuan sar ditzan.

Andrés Urrutia Badiola batzordekideari enkargatu zaio erabaki-proposamena jasoko duen txostena formulatzea, aurkaratzearen xede den Lege-proposameneko manuei buruz, 2016ko otsailaren 2ko bileran hartutako bigarren erabakia aplikatuz.

LAUGARRENA.- TXOSTENGILEEK AURKEZTUTAKO ZIRRIBORROAK, HOTS, “ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO HERRITARRAK AHALDUNTZEKO” LEGE-PROPOSAMENAREN AURKAKO 1/2016, 2/2016 ETA 3/2016 ESKUMEN-ARAZOEI BURUZKOA AZTERTZEA.

Aurkeztutako txosten guztiak garatu eta onartu dira.

Javier Balza Aguilera txostengileak txosten bat egingo du beraren txosteneko konklusioek ukitu zituzten Lege-proposameneko manuei buruz.

José Ramón Bengoetxea Caballero txostengileari enkargatu zaio, onartutako bi txostenak ikusirik, erabaki-proposamena jasoko duen txostena egitea, sortutako eskumen-arazoen xede diren gainerako manuei buruz.

Nabarmenezko moduko bestelako gairik ez dagoenez, amaitutzat jotzen da bilera hau 19:45ak direnean. Bertaratutakoei dei egiten zaie hurrengo bilerarako, 2016ko ekainaren 27ko 17:00etarako, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Honako akta hau egiten da eta Batzordeko lehendakariak eta batzordekideek sinatu dute. Nik, idazkaria naizen honek, fede ematen dut.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL